

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

27/2020 Mozioa, ekainaren 12koa, Foru Gobernuak gizarte-baliabideetan arrisku handiena duten erabiltzaileak eta langileak babesteko hartu behar dituen neurriei buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Gizarte Ongizatearen VII. Batzordeak, 2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

27/2020 Mozioa, ekainaren 12koa, Foru Gobernuak gizarte-baliabideetan arrisku handiena duten erabiltzaileak eta langileak babesteko hartu behar dituen neurriei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek aitortu egiten dute adinekoen egoitzetan, desgaitasunen bat duten pertsonen egoitzetan eta gainerako baliabide soziosanitarioetan lan egiten duten langileen ahalegina, zentro horietako erabiltzaileei ahalik eta arretarik onena emateko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ziurta dezala norbera babesteko ekipamenduen (gel hidroalkoholikoa, musuko egokiak, betaurrekoak edo pantailak, txabusinak eta lan-jantziak...) behar besteko hornidura dagoela Arabako Lurralde Historikoko adinekoen egoitzetan, desgaitasunen bat duten pertsonen egoitzetan eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan lan egiten duten pertsona guztientzat.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lankidetzan jarrai dezala profesionaleri eta erabiltzaileei COVID-19a diagnostikatzeko probak egiten jarraitzeko, betiere Gobernuaren Osasun Sailak xede horretarako ezarritako jarraibideekin bat.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egoitzetan laguntza psikologikoa jasotzeko bitartekoak jar ditzala, erabiltzaileen, langileen eta familien beharrei erantzun ahal izateko.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote foru-eskumenekoak diren gizarte-zerbitzuetako langileen bajak estaltzen jarrai dezala, beharrezkoak diren bitartekoak erabiliz.

6. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuetako zentroetan garbitasun- eta higiene-neurriak zorrotz ditzala eta titulartasun pribatuko zentroetan ere neurri horiek hartzen direla gainbegira dezala.

7. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako Lurralde Historiko osoko egoitza-sareari zuzendutako informazioa eman dezala, COVID-19ari loturiko agertoki desberdinak kudeatzeari, hartu beharreko neurriei eta egin beharreko esku-hartzei dagokienez.

8. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote kontingentzia-plan bat ezar dezala, jarduketa-protokolo egokiekin; plan horrek hainbat agertoki hartu beharko ditu kontuan, Arabako Lurralde Historikoko egoitza-baliabideetan COVID-19aren beste agerraldirik edo gorakadarik egonez gero ere.

9. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote erakundearen eta egoitzen arteko komunikazioa indar dezala, erabiltzaile, senide eta langileen parte-hartzearekin, haien beharrianak hobeto ezagutu ahal izateko.

10. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote titulartasun pribatuko egoitza-zentroetan beharrezko betekizun materialak, funtzionalak eta profesionalak betetzen direla gainbegira dezala.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 12a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA